

ELKARRIZKETA: ASIER ARANGUREN, KAZETARIA

ARKO

Arrasate

P R E S S

1999ko
azaroak 19
472. zenb.

Asteburuetako denborapasa

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA ELKARRIZKETA: JON GARAI
EUREN IKUSPUNTUTIK: JABIER ABALDE • KIROL GAIA: ZAZPINAKO FUTBOLA

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎ 943 77 13 34

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak, Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirodegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua: Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Munar, 10 ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NÚÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCÍA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Oroimenari leihoa

Beste itsaso baten bertzean, beste eltzegile zahar batek erretiroa hartu du. Begiak lausotu egin zaizkio, eskuek dar-dar egiten diote, agurraren ordua iritsi da. Orduan, hastapen erritua hasten da: buztinlari zaharrak bere piezarik onena eskaintzen dio buztinlari gazteari. Horrela agintzen du tradizioak Amerikan ipar-mendebaldeko indiarren artean: joan doan artistak bere maisulana ematen dio hasten ari den artistari.



Karmele Perez

Eta eltzegile gazteak ez du ontzi perfektua gordetzen hari begira egoteko eta miresteko. Aitzitik, lurrera botatzen du, mila zatitxotan apurtzen du, zatitxoak jaso eta bere buztinarekin nahasten ditu".

Horrela irakurri nion aspalditxo Gleanori. Aurreko astean Gatzagan eta urtean zehar hainbat herritan egiten diren makina bat

"Zertarako erabiliko ditugu eskuak aurrerantzean?"

artisaerakusketa ditugogooan lerrook idazterakoan. Buztina, egurra, artilea, lastoa, papera, hostoak, burdina, argizaria... hamaika gai eskuekin landuta, hamaika gai tradizioz eta oroimenez jantzita.

Badirudi, baina, jantzi horiek egoera oso mugatueta-za zokoratu ditugula. Izan ere, mikrotxipen eta ekonomia birtualaren garaian gaude.

Teknologia berriak bizi ditugu eta horiek bizi gaituzte, nahita edo nahi gabe. Gure herri-rik mugitu ere egin gabe, esan digute etxeko lanak ere mayordomo batek egingo dizkigula aurki. Uste dut asko poztu egingo direla. Niri, aitortu egin behar dut, beldurra ere ematen dit hainbeste aurrerapausok. Beldur naiz erosotasunaren eta garapenaren izenean ez ote garen gehiegikerian erortzen ari.

Zertarako erabiliko ditugu eskuak aurrerantzean? Non ari zaigu geratzen ondo egindako lanaren balioa?

Badago jendea balio horiek aintzako-koztat hartzen dituenena. Geratzen diren horiei artisaer deitzen diegu, eskulanak usadiozko erara egiten dituzten pertso- nei, eta egiten duten lanari, artisaer- tza. Eta egia da herri honetan baloratzen direla oraindik lan horiek. Erakusketa horietara joatea baino ez dugu horretaz jabetzeko: makina bat jende biltzen dute inguruan eskulangintzak eta produktu naturalen produkzioak.

Egia horrek badu baina bat, ordea. Baloratu egiten dira, baina ez erosi: izan ere, prezioa bidezkoa izango bada, produktua garesti samarra izango baita sarri. Badirudi, beraz, laguntza bere- zikiak behar direla, lan horiek iraungo badute.

Eta beste egia bat ere badaukagu: badago ekimenik eta interesik gazteek ere bide hori jorra dezaten. Eta horren erakusle, gazteentzat antolatzen diren lehiaketa bereziak edo erakusketetan ikusten hasia den erreleboa.

Itsaso haren ertzean bezala, hemen- goan ere oroimenaren ondareak belau- naldiz belaualdi iraungo al du! Oroimenak ere egiten baikaitu berri. ■

"Ez dut Hego Euskal Herrira itzuli nahi, atxilotuz gero torturatuko nauten beldur naiz eta"

Arantxa Sasiain

47

lanpostu hitzarmen finkokoak funtzionario udaletxean

Arrasateko Udalak aukera emango die lan hitzarmen fin- kkoa duten 47 langileri fun- tzionario izateko: 27 udale- txean bertan, 8 Iturbide egoi- tzan eta 12 Aukean. Orain arte udalak 96 funtzionario ditu.

ITURRI ONÉTİK

Gatzaga bor-bor

Atzean geratu ziren Leintz-Gatzagaren gainbeherako urteak. Jende gaztea eta ekintzailea ari da udala zuzen- tzen eta lan eta lan dihardute asmo berriak sortzen.

Aste honetan bertan, Eugenio Otxoa Leintz- Gatzagako alkateak proiektu baten berri eman du Mendikoi, Eusko Jaurlaritzaren erakunde batean. Kontua litzateke gaztea eta argindarra sortzea, koje- nerazio sistema erabiliz. Honen arabera, gatzura berotu egin beharko litzateke; ondorioz, gazta sortu- ko litzateke, baina baita bi motatako energia ere: argin- darra eta energia termikoa. Beraz, herrian kontsumi- tzeko argia sortuko litzateke eta akaso, bainu termal- lak berotzeko beste energia.

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Aran- tza Zuñiga, Arantza Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolab- elia (Tel.: 943 71 23 90). **Disainua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemak:** Monika Balastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sai- la, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Men- dizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Ger- tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har- tzen aldizkarian adierazitako esan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS papera birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

Arrasateko Udaleraren laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

TXIROTASUNAREN AURKAKO NEURRIAK

Abenduan hitzartu behar dira parlamentuetan Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuek prestaturiko aurrekontuak. Oraindik ez dakizkigu partiden kopuru zehatzak, baina orain arte aditzera eman denak argi uzten digu bi gobernuek jarraipen aurrekontuak nahi dituztela. Aurrekontu politika honek jarraitzen badu, zalantza izpirik gabe izugarritzko iruzur sozialaren aurrean aurkituko gara.

Azken hiru urteotan enpresen irabaziak soldatak baino hogeita bost aldiz gehiago handitu dira eta ez da horregatik langabezia maila txikitu.

EUSTAT eta EPAREN arabera Euskal Autonomia Erkidegoan 156.500 langabetu daude eta 23.500 Nafarroan.

INEMEK 50.140 langaberi soilik ematen dizkie laguntzak eta beste lanik gabeko 130.000 pertsona laguntza gabe uzten ditu.

INEMEN gastuak hainbeste gutxitiu dira Barne Produktu Gordinaren hazkundearekiko, Euskal Autonomia Erkidegoko "institutuaren" arabera 50.000 milioiko superabita dago.

Txirotasuna saihesteko planek, aldiz, emaitza negargarriak erakusten dituzte bi erkidegotan. IMI (gutxieneko diru sarre-

ra) 16.000 familiak soilik (72k Arrasaten) kobratzen dute EAE-n eta ez dute hilean 46.000 pezeta ziztrin baino gehiagoko kopurua jasotzen.

Gaur egun Arrasaten 72 pertsonak kobratzen dute IMIa eta udalak Lanbidearteko Gutxieneko Soldatara artekoa osatu behar lieke. Era berean, udalak apurka-apurka aurrera egin behar du bertako langileen lan jarduna murrizteko bidean, asteke 32 orduetara iritsi arte.

Eskubide Sozialen Gutuna onartu eta ezarri baino lehenago, instituzio publikoak debaitean parte hartzera gonbidatzen ditugu eta bide batez, 2000. urteko aurrekontuetan txirotasunaren aurkako ondorengo neurriak ezartzeko eskatu:

Gutxieneko intsertzio-soldata lanik aurkitzen ez duten eta beharra duten familia gutxietei zabaltzea.

Gutxieneko intsertzio-soldataren diru kopurua gutxieneko soldata interprofesionalarekin berdintzea (83.000 pezeta 12 soldatatan)

Pentsio guztien diru kopurua lanbidearteko gutxieneko soldatarekin berdintzea.

Neurri hauek INEMEN superabitaren bidez, iruzur fiskala kontrolatuz eta beharrezkoa bada zor publikoaren handitze kontrolatuaren bidez finantziatzea eskatzen dugu.

Pertsona bat, lanpostu bat.
Pertsona langabetu bakoitzak hilean 82.000 pezetako gizarte soldata.

*Arrasateko Gizarte
Eskubideen Gutunaren
Aldeko Plataforma*

TELEFONIA MUGIKORRE- RAKO ANTENAK

Euskaltelek eta Retevisi-
onek baimena eskatu dio-
te Makatzena kaleko 17ko
auzotarren komunitateari era-
kineko teilatua telefonia
mugikorreko tresneria jartze-
ko—antena bat eta kabina bat
komunikazio tresnekin—. Urtean diru kopuru bat eskaini digute, eskaileraren kostuen hainbateko kopurua.

Telefonia mugikorra gure osasunerako arriskutsua dela ziurtatzerik ez dagoela esaten diguten arren, bidezkoa iruditu zaigu jarrera bat hartu baino lehen gaian interesa duten hainbat herri talderi informazioa eskatzea. Informazio ugari eman digute eta hura irakurri eta gero, ondorio hau atera dugu. Bi ikuspuntu daude, eta biak elkarren kontrakoak.

• Batzuk alde daude eta esaten dute haien produktuek eragin magnetikoaren arau guztiak betetzen dituztela, eta ez diotela osasunari kalterik eragiten.

• Beste batzuek gaitzetsi egiten dute, pertsonen osasunerako kaltegarri dela probak dituzte eta. Halako antenatik hurrean bizi diren pertsonen esperientzietan oinarriturik, nerbio sistemaren eta garezurraren nahasmenak sufritzen dituztela diote. Anima-

liekin egin dira esperientziak, eta adierazten dute erradiazioek minbizia edo kantzerra sor dezaketela. Gainera, esan dute ez dela kasualitatea aseguru konpainiek erradiazio magnetikoak arrisku estaldueratik kendu izana.

Horren guztiaren ondorioz, Europako Batzordeak 3.000 milioi pezeta jarri ditu, telefonia mugikorak osasunean eragiten dituenak zehazteko.

Aurreko guztia kontuan izanik, Makatzena 17ko auzotarren komunitateari berdindio gaia behar bezala zehazturik ez egotea zientzia ikuspegitik; ez du bere etorkizuna hipotekatu nahi, bihar-etzi zehazten bada osasunerako kaltegarriak direla, berandu izango da eta; gura-guru dugu prebentiu, berandu denean negar egin baino. Horregatik, ez dugu baimenik eman guztiak betetzen dituztela, eta ez diotela osasunari kalterik eragiten.

Litekeena da Euskaltelek eta Retevisi-
onek beste auzo
komunitate batzuk konbentzi-
tu nahi izatea, eta horregatik
mesedez eskatzen diegu kon-
tutu handiz aztertze-
ko, batetik,
erabaki horren erantzukizuna
eta, bestetik,
erabaki horrek
gure osasunerako ekar ditza-
keen ondorioak.

*Makatzena 17ko
auzotarren komunitatea*

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 19

- Azkoaga, Iturriotz

Larunbata, 20

- Korkuera, Musakola

Igandea, 21

- Irizar, Erguin

Astelehena, 22

- Zabala, Zarugalde

Asteartea, 23

- Amezua, Santa Marina

Asteazkena, 24

- Ruiz, Maalako Errabala

Osteguna, 25

- Morales, San Andres

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer deritzozu hirietan sartzeko bidesaria ordaintzeari?

Horixe ari da aztertzen Madrilgo gobernua, kutsadura, auto pilaketa eta antzeko arazoak konpontzeko.



Kristina Quintana
(28 urte)
Ikaslea

Garraio publiko egokia jartzen badute ongi deritzot, baina bestela ez.



Alejandro Zabala
(59 urte)
Langilea

Gaizki iruditzen zait. Gauza guztiengatik ordainarazi nahi digute.




Raul Gonzalez
(23 urte)
Langilea

Ez zait bidezkoa iruditzen.



Elena Santiso
(40 urte)
Langabea

Komunitatearentzat ongizatea badakar, ongi dago.



Gerardo Jauregi
(68 urte)
Erretiratua

Horrelakoetara ohitu gabe gaude, eta arraroa egiten zait. Baina hirietako kutsaduraren aurka eta, zerbait egin beharra dago.



Vicente Sanchez
(36 urte)
Langilea

Txarto iruditzen zait. Ez dut uste hiriburuetako sarreretan bidesaria jartzea hirietako arazoak konpontzeko modua denik.



Mari Angeles Esteban
(43 urte)
Langilea

Zenbait lekutan dagoeneko ordaindu behar ez genituzkeen autobideak ere ordaintzen ditugu, eta orain hau jartzea, gehiegizkoa da.



Soraia Guisado
(23 urte)
Langilea

Ez zait ondo iruditzen. Hirietan autoek sortzen dituzten arazoak beste modu batera ere konpondu ahal izango dira.

Sagardotegia

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholzale Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

19

ostirala

■ ZINEA

El Club de la lucha, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ MUSIKA EMANALDIA

Arrasate Musikaleko ikasleek Santa Zezilia ospatzeko kontzertua eskainiko dute, Arrasate Musikalen, 18:30ean.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Frantziako *Nemless* hardcore melodikoa eta punk hardcore doinuak egiten dituen taldea eta Arrasateko *Gospel Killers* hardcore doinuak egiten dituen taldeak arituko dira Arrasateko Gaztetxean 22:00etatik aurrera.

■ DANTZARAKO DOINUAK

Aterpe kafetegian *La Cerrajería del Son* Donostiako seikoteak kontzertua eskainiko du, 23:00etan.

■ MIMO SAIOA

Mimos Clown taldeak saio berezia eskainiko du Gambrius Arrasate garagardotegian, gaueko 24:30ean.

20

larunbata

■ ZINEA

El Club de la lucha, 17:00, 19:30etan eta 22:00etan, Alai zineman.

■ ERRALDOI ETA KILIKIEN JAI EGUNA

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak eta Arrasateko Dultzaineroak Arrasateko Erraldoi eta Kilikien jai eguna ospatuko da azaroaren 20an, larunbatean. 12:30ean plazan konpartsero eta musikariei ongi etorria egingo zaie. 13:00etan Elgoibar, Gasteiz, Bizkaiko eta Arrasateko Dultzaineroekin kalejira eta tabernajira alaia. 14:30ean, anaiarteko bazkaria eta 19:00etan, plazan, Erraldoi eta Kilikien Konpartsen ekitaldia.

■ AEROBITOI HERRIKOIA

Lirain estetika zentroak antolatuta, I. Aerobittoi herrikoia egingo da Arrasaten. Iturripeko kiroldegian izango da 16:30etik 19:30era. Izen ematea 1.000 pta kostako da. Opariak ere zotz egingo dira.

■ GIZA BAZTERKETAREN AURKA

Giza Bazterketaren Aurkako Plataformaren ibilaldia Arrasatera iritsiko da arratsaldeko 19:30ean. Ongi etorria egingo zaio Eroski hipermerkatuaren aurrean. Ondoren, kale agerraldia egingo da.

■ MUSIKA KLASIKOA

Santa Zezilia kontzertua eskainiko du Bergarako Orkes-

tra Sinfonikoaren Ganberak Bergarako Udaletxeko osoko bilkura aretoan. Emanaldia 19:00etan hasiko da.

■ ANTZERKIA AMAIAN

“Un poeta en New York” antzezlan eskainiko du Producciones Imperdibles antzerki taldeak. Saioa Amaia antzokian izango da, gaueko 22:30ean. Sarrera: 1.000 pta (Gazte Txartelarekin, 800).

■ BERTSO TXAPELKETA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final laurdene-tako saioa egingo da Bergarako udal pilotalekuan, 22:00etan. Azpeitia-Urraki eta Zumaiako taldeak izango dira aurrez aurre.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Iruñeko *Leimotikan* hardcore melodiko taldeak kontzertua eskainiko du Pasaia-ko *Marlax* metal taldearekin batera. Emanaldia Arrasateko Gaztetxean izango da gaueko 22:00etan.

■ ROCK KONTZERTUA

Rosendo abeslariak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan, 23:30etik aurrera. Sarrera: aurrez 1.700 pta; hantxe 2.000 pta.

■ SANTA ZEZILIA KALEJIRA


Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko dute Bergarako kaleetan zehar, goizeko 11:30ean.

■ BANDAREN KONTZERTUA

Bergarako Udal bandak Santa Zeziliako kontzertua eskainiko du Bergarako udal pilotalekuan, eguerdiko 12:30ean.

■ BELDURREZKO ZINE MARATOIA

“Beldurrezko eta fantasiatzko zine maratoia”, azaroaren 21ean Amaia antzokian, 17:00. Sarrera 700 pta.



21

igandea

■ ZINEA

El Club de la lucha, 17:00, 19:30etan, eta 22:00etan, Alai zineman.

Spek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

22

astelehena

■ **ZINEA**

El Club de la lucha, Alai zinemari. 19:00 eta 21:30.

23

asteartea

■ **ZINEA**

El Club de la lucha, Alai zinemari. 19:00 eta 21:30.

■ **ERROMATARRAK EUSKAL HERRIAN**

Nicolas Osinaldek gai horren inguruko hitzaldia eskainiko du San Viator ikastolako liburutegian. 19:00.

■ **BATZARRERAKO DEIA**

Bailaran egingo diren makroproiektuei (autobidea,

haize zentral eolikoa eta bes-telakoei) buruz aritzeko, batzarrerako deitu dute Monterronera. 19:30.

25

osteguna

■ **ZINEA**

Agnes Brown, Alai zinemari. 19:00 eta 21:30.

■ **ZINEA AMAIAN**

Hombres armados, Amaia antzokian. 21:30. Sarrera: 450 pta. Gazte txartelarekin 400.

■ **ARIZMENDI TOPAKETAK**

Gizabideak antolatuta, Humanitate Fakultatean izango da, Eskoriatzan. 18:00

■ **ERROMATARRAK EUSKAL HERRIAN**

Alfontso Martinezek gai horren inguruko hitzaldia eskainiko du San Viator ikastolako liburutegian. 19:00.

■ **REIKI IKASTAROA**

Arrasateko Yoga Elkarteak Hasierako Reiki ikastaroa antolatu du azaroaren 27 eta 28rako. Remedios Serena izango da irakaslea. Saioak larunbatean (16:00-20:00) eta igandean, (10:00-14:00) izango dira saioak. Argibideak 943 79 35 76 zerbakian.

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA**

"Irakurtzeko plazerra" izeneko argazki erakusketa egongo da ikusgai Monterronen azaroaren 30a arte. Ordutegia: lanegunetan, 18:00-20:00. Jaiegunetan, 12:00-14:00/18:00-20:00.

■ **MENDI IRTEERA**

Besaide Mendizale Elkarteak Anbotara mendirako irteera antolatu du azaroaren 28rako. Izen ematea azaroaren 24 eta 25ean, Besaideren egoitzan.

■ **AMODIOZKO GUTUNA**

Abian da aurten ere Berrigarak antolatutako Amodiozko Gutunen VIII. lehiaketa. 1985ean edo lehenago jaiotako edonork har dezake parte. Argibide gehiago Jardun Elkartean, Bergaran. Lanak urtarrilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira.

■ **MARGO ERAKUSKETA**

Valentin Aranak bere lanak jarri ditu ikusgai Harresi aretoan. Erakusketa azaroaren 28a arte egongo da irekita. Ordutegia: 18:00-20:00, lanegunetan eta 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, jaiegunetan.

■ **KINTO BAZKARIA**

1938an jaiotako emakumeek elkartzeko eguna izango dute azaroaren 27an. Izena emateko Batzokira jo behar da. Prezioa 2.000 pta da. Argibideak: 943 79 22 61 (Joakina) edo 943 79 51 14 (Mari).

■ **ETBk MEZA PARROKIATIK**

Azaroaren 20an San Joan Bataiatzailea parrokiari iluntzean emango den meza grabatu eta azaroaren 21ean eskainiko du ETBk, goizeko 10:30etan. Kristo Erregeren eguna denez eta Santa Zeziliaren ospakizuna dela eta, saio berezia eskainiko du Parrokiako abesbatzak.

■ **KIROL TOPAKETA**

"Kirol politikari buruzko topaketa" antolatu du Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak. Azaroaren 26an izango da Monterronen. Izen ematea Euskadiko Kutxan, 5.000 pta.

■ **TENIS TXAPELKETA**

Deba Garaiko Mankomunitateak antolatu duen II. banakako tenis txapelketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago. Bergarako Labegaria eta kiroldegian jokatu da eta 16 urtetik gorakoei zuzendua dago. Izen ematea azaroaren 24an itxiko da.

■ **ARKOREN BATZAR NAGUSIA**

Abenduaren 2an Batzar Nagusia egingo du Arkok. Mondragon Hotelean. Arkok aurrera begira dituen proiektu berriak aurkeztea du helburu bilerak. 19:00.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua



DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA

Tel.: 943 79 24 58

USTEAK USTE

Arrasate informazio iturri?

Joan den astelehenean Mondragon Unibertsitateak prentsaurreko bat antolatu zuen Bilboko hotel batean, berak eta Vanenburg Business Systems enpresak sinatu behar zuten hitzarmenaren berri emateko.

Guk ez genuen joaterik izan, baina, halakoetan egiten dugun bezala, saiatu ginen beste batzuen bitartez telebistarako irudiak lortzen. ETBra deitu eta ezetz, ez zihoazela. Canal Bizkaira deitu eta ezta. TeleBilbao ere ez. ETBko Enpresa programako produktorari deitu eta beste hainbeste.

Barakaldo Telebistako lankideek azaldu ziguten egoera: "Hamazazpi prentsaurreko daude antolatuta gaur goizerako. Jaso dugu Mondragon Unibertsitatearen deia, baina zer den irakurri dugunean, informazio lokalizat jo dugu eta ez joatea erabaki dugu".

Hor dago kokxa. Kazetariak Arrasatera etortzea, pentsatu ere ez. Eta Bilbon edo Donostian zerbait antolatuz gero, Mondragon hitza agertzen bada, informazio lokala. Irtenbide bat aurkitu behar zaio egoera honi.

Joxe Aranzabal



Elgea: bai eta ez

* Jabier Abalde

Carlos Alonso eta Iñaki Barcena Ekologistak Martxan taldeko kideen "Zuhaitz eolikoaren eta baso energetikoen artean" izeneko artikulua irakurtzeak motibatua egin nau Elgeako parke eolikoaren inguruan dauden hainbat gai adieraztera.

Lehenik eta behin, esan behar dut bat natorrela artikulua horren eduki osoarekin. Artikulu horren sintesia honakoa da: "Elgea, datozkigun plan energetikoetan txanpon txikia da eta ildo horretatik bi proiektuon garrantziarekin bat datorren ardura eta ego-kitzapena izateko beharra planteatzen du". Jada adierazi dudanez, iritzi berekoa naiz, baina, nire ustez urritasun bat du; nahita egin duen edo ez, ez dakit.

Elgearekin ez gara proiektu bat edo bestea eztabaidatzen ari, ezta arazoak hierarkizatzen ere. Gertakari burutu baten aurrean gaude eta, nire iritziz, galdera honi erantzun behar diogu: zer pentsatzen dugu gai honetaz? Galdera

horren erantzunean dago urritasuna; izan ere, artikulua arazoak egoki hierarkizatzen baditu ere, ez du horri buruzko iritzia agertzen.

Gaur egun mugimendu ekologistan nolabaiteko eztabaida, nahasketa, dago Elgearen inguruan. Zergatik?

Bada, alde batetik, Elgearekin mugimendu ekologistaren "ikono" batekin egin dugulako topo, hau da, energia berriztagarriekin. Ekologista batzuek diote edozein eskuhartzek kaltea dakarrela, baina kasu honetan iritzi horrek ez du nahikoa indar energia eolikoaren ezarpenari trabak jartzeko. Iritzi

hau, energia berriztagarria bada denak balio duela dionetik oso hurbil dago eta nahastu ere, nahasten da.

Baina beste batzuek, eta horien artean nago ni, beste-lako iritzia dugu. Aipaturiko artikulua edukiarekin bat egonik ere, proiektu horren aurka egoteko pisuzko arrazoiak daudela uste dut.

Ekologistok gauregungo produkzio, kontsumo eta banaketa sistema aztertzen dugunean, berez txarra dela esaten dugu, planetako eremu bati nolabaiteko ongizatea ekarri badio ere. Hori pentsatzeko arrazoiak, bere funtsean, filosofian eta emaitzetan oinarritzen dira.

Elgeako kasuan, zein da funtsa eta filosofia?

- Ez zegoen sektorekako planik.
- Ez zegoen gutxieneko zorroztasuna zuen mapa eolikorik.
- Lurralde Antolaketaren Jarraibideen irakurketa okerra egin da.
- Gizarteak parte hartze-ko ardurarik txikiena ere ez da egon. Dena ilun eta ari-negi egin da.

Hori guztia ikusirik, saia gaitzen energia eolikoa, berriztagarria den aldetik eta gure ingurugiroa hobetzeko, era garbian erabiltzen eta, horrela, Garapen Iraunkorra hemen ere aplikatzen.


* Arrasateko Ekologistak Martxan taldeko kidea



Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
Setatik Bertera.
Tel.: 943 79 26 99



GURE MENDEA

XX. MENDEKO EUSKAL HERRIA LIBURU+CD-ROM ETA MAHAI JOKOAN

FAMILIA ETA LAGUNARTERAKO EUSKAL "TRIVIAL" A

SEI GAIEI DAGOZKIEN KOLOREAK ESKURATU BEHAR DITUZU!

- 1.500 galdera-erantzun
- 14 urtetik gorakoentzat
- 2-8 jokalaria
- Geografia, kirola, historia, artea, hizkuntza...

ERNE GALDERA GAIZTOEKIN,
ZIRIEKIN ETA TRANPEKIN!



Inbertsio
eder bat!

XX.MENDEKO EUSKAL KULTURA Liburu+CD-ROMean

LIBURUA

- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia erreferentziala
- Ehun argazki.

CD-ROMa

- Ehun kronika
- Urtez urteko kronologia osatua
- Hemeroteka: iritzi artikuluak, elkarrizketak, publizitate-iragarkiak
- Pertsonaia esanguratsuak
- Argazki ugari

 **ARGIA**ren
eskutik

ARGIA n salgai • Tel.: 943 37 15 45 • denda@argia.com

OÑATI


1 Auzotarrak, kexu

San Andres Etxebizitza Kooperatibako bizilagunek egin-dako eskaerak jaso du udalaren erantzuna. Olakua auzoguneko kaleak asfaltatzea eskatu zuten. Baita zaharberritu berri den Bidaurreta Dorrea inguratzeko duen berdegunea txukuntzea. Udal gobernuaren esanetan, hori guztia egitea aurreikusita dago. Hala ere, diruaren arabera zehaztuko da noiz egin.

BERGARA

2 Seinalizazioa amaitu da

Herriko gune turistikoetarako buruzko informazioa ematen duten bide seinale berriak ipintzeko lanak amaitu dira. Lanak apirilean hasi ziren, 10 milioi pezetako kostuarekin.



Orain seinalizazio berrien bigarren zatia egitea falta da. 2000. urtean ezarriko dira zirkulazioari dagozkion seinale berriak.

ANTZUOLA

3 Mendi hamabostaldia

Mendi hamabostaldia dela eta, hainbat ekitaldi antolatuta dituen Arrola taldeak. Batetik, datorren hilaren 23an diapositiba emanaldia izango da zinetokian, arratsaldeko 19:00etan. "Islandia Oinez" izenburua du eta Angel Cuerdo izango da hizlaria. Horretaz gain, hurrengo egunean, "Ene Errailetara" izena duen beste diapositiba emanaldi bat izango da. Jose Ramon Agirre "Marron" izango da hizlaria. Astea bukatzeko, larunbatean eta igandean Jose Ramon Agirrerren argazki erakusketa izango da udaletxean.

Aurreikuspen Planak

"Esaidazu nolakoa zaren eta zure Aurreikuspen Plana zein den esango dizut"

Aurreikuspen Plan **MODERATUA**

Aurreikuspen Plan **MISTOA**

Aurreikuspen Plan **ALDAKORRA**

Euskadiko Kutxan zure bitzitza-estiloari ondoen egokitzen zaion Aurreikuspen Planari buruz aholkatzen zaitugu

EUSKADIKO KUTXAK aurreikuspen planen eskaintza handitu egin du.

• **Euskadiko pentsioak**
Gorabeherarik gabeko errentagarritasuna lortu nahi duten pertsonentzat.

Posible da dirua batetik bestera aldatzea.

• **Euskadiko pentsio aldakorra**
Inbertsioak gehienez ere %40 errenta fijoan eta %60 aldakorrean egiten dira.

• **Euskadiko pentsio mistoa**
Gehienez ere inbertsioaren %30 errenta aldakorrean izatea aurreikusita dago.

Zoaz gaur bertan zure sukurtsalera, zure premiei hobeto egokitzen zaion planari buruzko informazioa jasotzera.


CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

ETXE MOBEL

MUEBLES


ALTZARIAK




BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA • LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

GRUPO **RKUZ**

FAGOR 

ALTZARIAK



Araba Etorb. 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte, 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA

astea bi hitzetan

■ Etxebizitza Babestua

Udalak zerbitzu berri bat jarri du abian. Etxebizitza Babestua du izena eta pertsona eda detuei dago zuzendua. Edozein egoitzatan baino hobeto egongo direlakoan, etxebizitza bat da pertsona nagusiei eskaintzen zaiena. Hau da, egoitzara joan beharrean, bizi izatera etxebizitza batera joatea. Horretarako, noski, bere kabuz baliatzen den pertsona izan behar du erabiltzaileak.

Oraingoz, etxebizitza bakarra eskuratu du udalak, alokairuan, zerbitzu hau emateko. Etxebizitzaz gain, baina, beste onura batzuk ere eskaintzen ditu Etxebizitza

Babestuaren zerbitzuak. Gosaria izan ezik, beste jatorriak Iturbide Egoitzan egin ahal izango dituzte etxebizitza horretan bizi direnek. Baita arropa garbiketa ere. Gainera, egunean ordu eta erdiz garbiketa egingo dien norbait joango zaie.

Lau pertsonak erabili ahal izango dute etxebizitza hau. Gizonezkoak izango dira hasieran. Izen hauek zehazteko, berriz, Iturbide Egoitzara sartzeko dagoen itxaron zerrendara joko da.


Zerbitzu honek ondo funtzionatuz gero, proiektuarekin aurrera segitzeko asmoa dago.

■ Xaflak ebakitzeko

Fagor Arrastek xaflak prentsa bidez ebakitzeko sistema bat ezarriko du Mexikon. Autoentzako kanpoko piezak egiten dituen enpresa batean ezarriko da sistema hori. 800 bat milioi pezeta-kostua izango du sistemaren ezarpenak.

■ Istripuak

Istripuz jositako eguna izan zen asteartea. Hiru istripu izan ziren errepideetan. Ikusgarriena Epele ingurukoa izan zen. Kanpanzartik zetozen hiru automobilek eta kamioi batek elkar jo zuten. Zorionez, egon ziren zaurituak ez ziren larriak izan.



■ Juanito Oiarzabal Mondrago

Pasa den ostegunean Mondragon Unibertsitateko Areto Nagusia gaztez bete zen. Juanito Oiarzabal mendizaleak, azken urteotan egindako 8.000ko hamalau mendietan izandako esperimentzia kontatu zuen, ikus-entzunezko emanaldi baten bidez.

“ Enplegu zenbakirik gorenak lortu ditugu, baina aberastasuna ez da era proportzionalean banatzen. Pobreturik dauden eremuak gero eta gehiago dira. Enplegu gehien dagoen tokietan jaitsi dira langabezia tasak. Aztertzekoa da herri erakundeek egin beharreko ahaleginak egiten dituzten pobreturik dauden guneeetan. Laneko arriskuak ere areagotu egin dira eta eragin handiagoa dute aldi bateko kontratuetan mugagabekoetan baino. Azpiegiturretan, adibidez, dugun burdinbidea negargarria da. Euskal Autonomia Erkidegoan 800.000 tona garraiatzen dira egunero eta horren %80 errepidez egiten da”.

JAVIER MONGELOS

El Pais

1999.11.14

Jostunen afaria

A b e n d u a k 1 1 , z a p a t u a

KATAIDE
J A T E T X E A

MENU BEREZIA:

- Urdaiazpikoa, pate, frijituen aukera, kanapeak.
- Lengoradu-erroilutxoak ganbekin, txakolin erara.
- Limoi sorbetea txanpainarekin.
- Solomilloa piperbeltz-saltsarekin edo entrekota roquefort-saltsarekin.
- Tarta desberdinak dastatzeko.

Prezioa: 5.500 pta.

KATAIDE JATETXEA • Kataide industrialdea • Tel.: 943 79 60 10 / 77 10 80

Dantza eta
ikuskizuna




ondoren...

Euskaltzaindiak "Debagoiena" izena eman dio bailara honi

Orain arte *Deba Garaia* deitu dugun inguru hau aurrerantzean *Debagoiena* izango da, Euskaltzaindiak azaroaren 5ean erabaki zuenez.

Lau izen erabili zituen Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak: orain arteko *Deba Garaia*, *Debagurena*, *Debagoiena* eta *Debaguena*. Eta hobetsia, aukeratua, esan bezala... *Debagoiena* izan da, dena batera idatzita. Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko kideak esan zuenez, "Goiena forma aukeratu genuen, hori delako inguru horretan gehien erabiltzen dena. Bertakoa, gainera, horixe da".

Deba Garaia izena analogiaz sortu zen transizio denboran, Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaiairen eredia kopiatuz. "Gaizki ez dago", esan zuen Gorrotxategik, "baina ez da egokia".



Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak hartu zuen erabakia.

DEBAGOIENA

- Leintz-Gatzaga
- Eskoriatza
- Aretxabaleta
- Arrasate
- Bergara
- Elgeta
- Antzuola
- Oñati

DEBABARRENA

- Plazentzia
- Eibar
- Elgoibar
- Mendaro
- Deba
- Mutriku

Batzar hartan Deba bailara osoari dagozkion izenak ere erabaki zituen Euskaltzaindiak. Horrela, bailara osoari *Debarroa* deituko zaio. Goi aldeari *Debagoiena* eta beheko zatiari *Debabarrena*.

Baten bat harritu egingo da hiru hitzak dena batera idatzita ikusirik. "Ibai arroen kasuetan, dena batera idazteko irizpidea du Euskaltzaindiak", esan zuen Gorrotxategik.

Hemendik aurrera, bada, Arkok izen hauek erabiliko ditu gure bailara izendatzeko. Zer gertatuko da, ordea, Deba Garaiko Mankomunitatearekin?

Litekeena da Mankomunitateak ere bere izena egokitzea, Euskaltzaindiak hartutako erabakiaren arabera. Horretarako, ordea, aldatu egin beharko lituzke oraingo estatutuak.

UGARTE

A R O Z T E G I A

Apainketa • Altzariak

San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxes: 943 76 54 91

Langabezia eta pobreziaren aurkako taldea eratu da

Giza Bazterketaren Aurkako Taldea izeneko elkarte eratu da Mondragoan. Asteartean egin zuen jendaurreko aurkezpena.

Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Gutuna onartzea da talde honek Eusko Jarularitzari egin dion eskaera. Horretarako, hainbat sindikatu, alderdi politiko eta giza mugimendu talde honen baitan batu dira. Hauetaz gain, baina, badaude norbere kabuz inplikatu diren herritarrak ere.

Izan ere, taldekideek adierazitakoaren arabera, elkar-tea zabalik dago parte hartu nahi duen edonorentzat.

Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Gutunak, izenak



Prentsaurrean aurkeztu zen talde berria.

berak adierazten duen moduan, giza eskubideak defendatzen edo aldarrikatzen ditu. 1996an adostu zen gutuna, langabezia eta pobrezia desagertarazteko helburuarekin.

Eskutitz honen barruan, soldata soziala da egiten den aldarrikapen nagusia. Hori eskatzeko ibilaldia hasi zen Tuteran hilaren 13an. Hilaren 27an Barakaldora iritsiko da

ibilaldi hau eta aurrez, larunbat honetan, Arrasatek pasa-ko da. Arratsaldeko 19:30ean ongi etorria egingo diote Eroski aurrean.

Honetaz guztiaz gain, ostegunean elkartasuneko mozioa aurkeztu zen udaletxean egingako osoko bilkura berezian. Mozioa sindikatu guztiek eta Egizian taldeak sinatu dute. Guztira 12 puntu onartzea eskatu da. Udalak lanerako erabili beharreko funtzionamenduari buruzkoak dira hamabi puntuak, 32 orduen ezarpena, adibidez. Era berean, enplegu eta gizarte babeserako batzorde bat sortzea ere eskatu zen.

Udalbiltzari atxikimendua

Udalak atxikimendua eman dio Udalbiltzari.

Osoko Bilkurarako deialdi berezia egin zuten proposamen honekin EAJ, EA eta EH alderdiek joan den ostiralean. PPko eta PSOEko kideak ez ziren udalbatzarrera agertu, beraz, proposamena gehien- go osoz onartu zen, EAJ, EA eta EH ren aldeko botoekin eta EBren abstentzioarekin.

Lau puntu adostu ziren bilkuran: Arrasateko Udalak Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea bere egitea.

Bestetik, bertako kide izateko borondatea adieraztea. Eta erabakiaren berri Udalbiltzari zein herritarrei jakinaraztea.

Honetaz gain, Santamas egunean Kontzeziñon haritz bat landatzea ere onartu zen, Udalbiltzaren oroigarri moduan. Bileraren ondoren, ikurriñari omenaldia egin zitzaion herriko plazan. Udalbiltza Euskal Herrian eratu den lehenengo erakunde nazionala izanik, ongi etorria eman zitzaion ikurriñari aurrekuarekin.

Ikasle presoek aldeko taldea



Asteazken eguerdian egin zen taldearen aurkezpena.

Mondragon Eskola Politeknikoko Kontseilu Sozialaren barruan, Presoen Aldeko Taldea sortu dute Eskolako hainbat ikaslek, gehien- goaren oniritziarekin. Taldeak Eskolako Presoen Aldeko Taldea izango du izena eta hiru helburu nagusi ditu.

Batetik, euskal preso politikoek eskubideen alde lan egiteko eskolako hainbat sektoretako jendea bil- tzea.

Bestetik, orain dagoen espetxe politika salatzea eta euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten aldarrikatzea. Azkenik, euskal preso politikoek eskubideak errespetatu eta bermatzea eta euskal presoek Euskal Herriaren erai- kuntza prozesuan parte hartzea ere eskatzen dute. Horretarako eskolan dinamika eraginkorrak eta iraunkorrak sortzeko asmoa dute.

Greba irakaskuntzan

Ikasleak kalera atera ziren asteazkenean IA taldearen deialdiari jarrituz. Ikasleen nazioarteko eguna zela eta, euskal eskola nazionala aldarrikatzeko irten ziren kalera ikasleak. Eguerdian kale agerraldia abiatu zen Seberotik, makinatxo bat ikasleren partaidetzarekin.



Hilabeteko espetxe zigorra Arantxa Sasiaini

Astelehenean Baionako epaile batek hilabeteko espetxe zigorra jarri zion Arantxa Sasiaini. Hurrengo hila Paucoko espetxean igaro beharko du, beraz.

Polizia frantsesak larunbat gauean atxilotu zuen Arantxa, Baionan. Maiatzean zazpi urteko kartzelaldia amaitu zuen Parisen eta Frantziako Gobernuak Somme izeneko probintzian konfinatu zuen, Frantziako Iparraldean. Hilabete geroago, berriz, ekainean, Baionan agertu zen, prentsaren aurrean, Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aldarrikatuz. Prentsaurre hartan Donibane Lohitzuneko dentista batek egindako lan kontratu bat erakutsi zuen.

Harrezkero, bakean eta lasai bizi izan da, hainbat etxe garbitzen. Frantziako poliziak



Arantxa Sasiain.

uneoro jakin izan du non bizi zen eta non egiten zuen lan.

Arantxa Sasiain Musakolan jaio zen, orain 49 urte. 25 urte dira Iparraldera ihes egin zuela. Baionako epailearen sententziak etsipena eragin du

ARRASATEKO UDALAREN IDATZIA

- Frantziako Estatuak Arantxa Sasiaini ezarritako Amiens hirian bizitzeko eginbidea gaitzesten dugu, izan ere horrelako neurriek bai Arantxa Sasiainek eta bai gainontzeko euskal errefuxiatuek beraien bizilekua zein izango den askatasunez erabakitzeko eskubidea urratzen dute.
- Euskal errefuxiatu guztiak Euskal Herrian askatasun osoz bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzea.
- Horrelako ekintzek bizi dugun une historiko honetan aurrera eramaten ari garen bake prozesua oztopatu baino ez dute egiten.
- Arantxa Sasiaini eta bere senitartekoei elkartasuna adieraztea.
- Frantziako Estatuak ordezkatzeko organoak Arantxa Sasiain euskal errefuxiatua aske utz dezatela eskatzea.

Arantxaren familian, ikusten baitute haren egoera larriak ez duela akaberarik. "Zer egingo du 49 urterekin, lanik ez

dagoen toki batera bidaltzen badute?", esaten zuen Begoñak, Arantxaren ahizpa gazteak.



**Zure hildakoen
eskela,
eskerrona edo
urteurrena
jarri nahi baduzu,
oraintxe duzu aukera
Arrasate Pressen eta
ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91



MUNDUKO MARKA, OINEZ

Marianne eta Werner norvegiarrek 18 urte daramate mundua ikusten. Dagoeneko 200.000 kilometro egin dituzte oinez, Europako 28 herrialde ikusiz.

Euskal Herrian ibili dira egunotan, eta

joan den ostegunean, Mondragoen gelditu txo bat egin zuten Gasteizerantz jarraitu aurretik.


Orain, Afrikara doaz, paraje hura ezagutzeko asmoz. Ondo joan!!!



LUXUZKO IRAKASLEA

Francisco Javier Rosario Vega, Puerto Ricoko tronboijolearen ikasleak fin aritu ziren igandean udaletxean eskaini zuten kontzertuan. Bera, Sevillako Orkestra Sinfonikoko kide da orain eta astebetez Mondragoen izan da.

Tarte horretan 20 pertsona hartu eta goiz eta arratsalde izan da tronboia jotzeko aholkuak ematen. Igandean jendarean erakutsi zuten ikasitakoa.



I. Aerobitoi herrikoia Arrasaten

Eguna: Azaroak 20 (larunbata)

Tokia: Iturripeko kiroldegia

Ordua: 16:30-19:30

Prezioa: Hantxe: 1.000 pta.

Aldez aurretik (Lirain gimnasioan): 800 pta.

Ikusleak: 400 pta.

Antolatzailea:

LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer kalea, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17

Opariak zozkatuko dira!



Argazki Bideo Zapping

BAT EGINIK...

Marisol eta Juan Karlos ezkon berriak dira. Pasa den uztailean baietza eman zuten Eskoriatzako San Petri parrokian. Hona hemen egun horren oroigarri polita. Ondo izan, bikote!

HORI BAI GRINA!!!

Hiru urtean bizikletan ibili da Omar Ruiz-Diaz gaztea Ameriketara zehar. Paraguaiarra sortzez eta kanadiarra legez, Paristik dator orain. Asmo ekologiko batek mugitzen du Omar: distantzia motz, luze zein ertainetan bizikletaren erabilera bultzatzea. Dagoe-neko 18 herrialde-tan zehar ibili da ideia hori zabaldu nahian.



A ZER GOZAMENA!!!

A zer giroa sortu zen igandean Jokin Zaitegiko karpán! Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak haurtxoek dibertigarri paregabea izan ziren Euskararen Tunelaren egitarauen barruan. Eguraldi eskasa eta hotza nabaria izan arren, makina bat umek pozik asko pasatu zuten igande arratsaldean!

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

Eta zuek, zer egingo duze

- ❑ Asteburu heltzear dago. Zer asmo daukazu?
- ❑ Larunbat gauen DJ bikote ezagun bat dator dantzalekura. Sekulako jaialdia antolatu behar dute, joan den asteburukoa baino hobea.
- ❑ Orduan prestatu egin beharko dugu.
- ❑ Bale, nire kontu pilulena.
- ❑ Ongi da, ni besteaz arduratuko naiz.

Elkarriketa hau ez da hutsetik atera. Lagun arteko ohiko elkarriketa bihurtzen ari da aspaldian. Boladan dago asteburu osoa parrandan igarotzea, etxera itzultzeaz gogoratu ere egin barik. Gure artean ez da berria hori, baina ondo pasatzeko ohiturak aldatzen ari dira. Denok egoten gara aste osoan asteburu noiz helduko zain, baina dantzalekuetara joatea ote da guztia?

Gure inguruko gazte askok egiten dute. Eugenio Iturriotz medikuak kontatu digunez,

“kontsultara gero eta guraso gehiago etortzen da, euren seme-alabak arraro daudela esanez. Haserre egoten direla, iheskor eta euren musika-rekin bueltaka”. Hasiera batean nerabezaroan sintomak direla esan daiteke, eta neurri batean horrela da, baina horren atzetik bestelako arazoak ere izaten dira. Asteburuaren ondorioak dira, gazteak aspaldi honetan hartzen ari diren ohiturek dakartzatenak. Jadanik ez da nahikoa larunbat gauean ondo pasatzeko asmoarekin irtetea. Dantzarako musi-

ka doinu berrien inguruko giroa dago modan eta horrek dakarren guztia. Kultura bilakatzen ari da. Jantziak, orrazkerak, hitz egiteko erak, abia da handia hartzen duten autoak, autorako musika aparailu indartsuak... eta drogak! Diseinuzko drogak eta hauek eskuratu eta hartzeko erraztasuna.

Deunoro Oterok, Udaleko drogamenpekotasuneko teknikariaren ustez, “arazoa ez dira hartzen diren droga motak. Sustantzia baino gehiago, horren inguruan dagoen bizitza estiloa bilatzea baizik”. Udalak orain dela hamar urte abiatu zuen drogamenpekotasun zerbitzua. Garai hartan Arrasaten heroinak arazo larriak eman zituen eta gazte asko “jausi” zen. “Gaur egun, heroinaren kontu hori ‘kontrolatuta’ dagoela dirudi eta bestelako sustantzia batzuekin

DROGA	PREZIOA (ptak)
○ pilula 1	1.500
○ tripi 1	1.500
○ speed	1 gr/1.500
○ kapsula	2/2000
○ kokaina	1 gr/10.000
○ ketamina	1 gr/10.000

* Prezio hauek kalean esandakoaren arabera.

ari dira adituak. Diseinuzko drogak oso zabaldua daude eta gure gazteak asteburu erabiltzera ohitzen ari dira. Droga horiek sortzen dituzten espektatibak ikaragarriak dira eta gaur egun, etxetik irten orduko, drogaren efektuaren bila joaten da gazte asko”.

DISEINUZKO DROGAK

Anfetaminatik ateratakoak dira, besteak beste MDMA edo “extasis”, MDA edo “amodioaren pilula” eta MDEA edo “eva”. Etorkizuneko drogak



Diseinuzko drogek geldik egon ezina dakar eta dantza egitea ihesbidea da.



Extasi edo pilula.

ze asteburuan?

IRAUPENA

EFEKTUAK

3 ordu	Jarduera fisiko eta psikikoa areagotu, norbere buruarengan konfiantza areagotu, euforia, lorik egin ezina, takikardia, hipertentsioa.
3-6 ordu	Mila koloreko ilusio bisualak, egonkortasun emozionalik eza, hipertentsioa, takikardia.
ordubete	Euforia, ongi sentitzea, goserik eza, mugitu beharra.
ordubete	Euforia, ongi sentitzea, goserik eza, mugitu beharra.
ordubete	Ondo egotea, euforia, takikardia, hipertentsioa.
ordubete	Euforia izugarria, egon ezina, alaitasuna.

omen dira hauek, baina gaur egungoak dira dagoeneko gure gazteen artean. Eugenio Iturriztek dioenez, "jendeak aspirinak balira bezala hartzen ditu, xiringarik nahiz odolaren parafernaliarik gabe eta, gainera, ondo pasatzearekin eta ez dakit zer eragin afrodisiakorekin lotuta. Baina jendeak ez daki droga hauen eragin psikikoen berri".

Horren aurrean, kontsumo arduratsua aldarrikatzen dutenak eta debekua aldarrikatzen duten mugimenduak daude.

Deunorok dioenez, "egia da kontsumo arduratsua ez dela erreal, baina informazio gutxi dago eta horrek drogaren aurrean oso jarrera ezkorra izatera garamatza. Udalak egiten duena prebentzio lana da, informazioa eta orientazioa eskaintzen dugu. Gure asmoa herrian drogamenpekotasunari buruz dagoen irudia aldatzea da eta prebentzio ekintza hezitzailea bultzatzea. Horretarako jakinmina duen edonork jo dezake zerbitzu honetara bulego orduetan".


Eugeniok droga hauek dituzten ondorioak azpimarratu nahi izan digu. "Diseinuzko droga hauek nahastuta hartzen dira jeneralean eta nahasketek eragiten dituzten ondorioen gainean, oraindik oso gutxi dakigun arren, jakin badakigu anfetamina kontsumitzaile batek sei hilabetera ondorioak somatzen dituela. Ikerketa batek dioenez, anfetaminaren kasuan 78 pertsonatik hamaikari ondorio psikotikoak aurkitu zitzaizkion.

Honelako egoeraren aurrean beharrezkoa da informazioa. Izan ere, asteburuetako drogazalearen irudia normalizatzen ari da gure gazteen artean eta astean zehar ezer hartzen ez badute ere, epe ertainera ondorioak antzematen zaizkie eta horixe da kontsumitzaileek ez dakitena".

Diseinuzko droga hauek ez dira merke ateratzen. Noski,

kontsumoaren arabera izaten da, baina "asteburu baterako 10.000 pta. behar izaten dira gutxienez" dio I. G. gazteak. "Speed gramo bat eta pilula erostea izaten da normalena, baina horrez gain, dantzalekuko sarrera ordaindu behar izaten da eta, noski, edaria. Horrelako sustantziek izerdia eragiten dute eta deshidratazioa ekiditeko, edan beharra dago. Gainera, komunetako iturrietako ura kendu egiten dute eta ura ere oso garesti saltzen da leku horietan".


Pilulak (*Mitxubisiak, Euroak, Mercedes, Canguros, Opel, Warner Bros...*) zuzpertzzaileak dira "bihotza azkartzen dute eta geldik egon ezina eragiten horregatik egiten dugu horrenbeste dantza". Dena dela, "droga hauen guztien efektuen iraupena ez da gau osorako izaten eta gehiago hartu behar izaten da, martxa horrekin segitzeko".



LSD.



Speed edo arrastoa.



Kapsula.



Kokaina.



Ketamina.

1: Aurrea hartu:

- Erropa estuak eta kapelak sahiestu.
- Ez zaitez denbora luzean, dantzan gelditu gabe ibili eta sasoi onean ez bazaude gutxiago.
- Orduko ur botilatxo batek duen beste likido edan edo zuku natural eta kirolarientzako edariak.

2: Ezaugarriak antzeman:

- Etengabe iserditan zaude.
- Dardarak.
- Bapatean nekatuta eta ahul zaude.
- Buruko minak, zorabioa eta gonbituak.

3: Eta azkenik:

- Toki freskora joan, buzti ur hotzarekin.
- Hobeto ez bazaude, eskatu ambulanzia bat eta hartutakoaren berri eman.

Zer

Iturria: Hazkunde (Eusko Jaurlaritza)

egin deshidratazioaren aurrean

HONA HEMEN KONTSUMITZAILEENTZAKO HAINBAT OHAR

☐ Asko kontsumitzearen eraginak

- antsia
- nahasmena
- beldur-ikarak
- aluzinazio paranoideak.

☐ Kontrola galtzearen zergatiak

- Hurrengo kolokoiaren bila ibiltzea.
- Gehienetan estasiari buruz baino ez da hitz egiten.
- Zaletasunak alde batera utzi eta aisialdia jairik jai ematen du gazteak.
- Estasia ez duela hartuko erabaki eta diskotekara heldu orduko, iritzia aldatzen du.
- Kontsumoa saihesteko asteburuetan irteteari uzten dio.
- Egunak aspertuta igaroten ditu, asteburuaren zain.
- Lana, ikasketak etab. alde batera utzi-ko ditu.

☐ Zer egin norbait estu eta beldurrez dagoenean?

- Jendez beteta eta zarata handia dagoen tokietatik kanpora eduki.
- Hitz egin geldiro eta beldurra piskanaka aldentzen joango dela azaldu.

☐ Legeak dioena

- Pilula bat eramatea arau-urratzea da eta isuna 50.001 eta 5 milioi pta bitartekoa izan daiteke.
- Trafikatzeagatiko zigorra 3-9 urte bitartekoa da.

☐ Ideia praktikoak

- Gidatzea saihestu.
- Ordu batera heldutakoan, zenbat kontsumitu den jakitea ez da erraza izaten.
- Gogoratu gorputzak atsedena behar duela.
- Astean zehar kirola egin.
- Gatz eta mineral maila ona izatea komeni da (platanoa, laranja... jan).

Iturria: Hazkunde (Eusko Jaurlaritza)

Garai batean drogak inguru marginalekin lotzen ziren. Gauregun, egoera aldatu egin da. Asteburuetan normala da honelako sustantziak hartzea, giro jakin batzuetan: diskoteken giroan, batez ere. Jadanik kontsumitzaileek ez dituzte drogak hartzen euren arazok ahazteko, ondo pasatzeko baizik. "Eta hor dago koska" dio Eugenio Iturriotzek. "Horren aurrean zer egin? Informazioa beti da lagungarri, baina..."

Drogak legeztatzea "arazoa" konpontzeko irtenbide bezala planteatu izan da hainbat lekutan. Baina Holandan, esaterako, drogaren kontsumoa legalizatu zenetik, igo egin da kontsumitzaile kopurua. Zein da, beraz, irtenbidea? Alboko taulan jasotzen diren gomendioak eman baino ez dago gure eskutan. ■

Marijo Deogracias



Mendizaletasuna bultzatu nahian

Aumategi gainera igoko dira asteburuan Arrasate Kirol Proiektuko (AKP) neska-mutikoak. Eta horretan lagunduko diete Mikel Bergara eta Ekaitz San Vicente Besaideko lagunek.

Bikote honek antolatzen ditu AKPk egiten dituen mendi irteerak. Euren adierazi digutenez, "aurten inguruetako mendietara joateko asmoa dugu. Igandean bi autobusetan abiatuko gara. Jeneralean 100 bat lagunek ematen dute



Mikel Bergara eta Ekaitz San Vicente.

izena eta". 9 eta 14 urte bitarteko haurrak joaten dira mendira eta txikienean, 4. mailakoek, gurasoekin edo anai-arreba zaharragoren batekin joan behar dute. Bikote honek aitortu digenez, "hilean behin gustura egiten da hurrekin mendi ibilaldi bat". Mikelek eta Ekaitzek hurrekin egin behar duten ibilaldia ondo prestatu dute "aurretik ibilbide berbera egiten dugu gauzak lotzeko eta zenbat denboran egingo dugun jakiteko".

Asteburuko hitzorduak Azaroak 20, larunbata

SASKIBALOIA

MUTILAK

Mariaren Lagundia

- 10:00 Mariaren Lagundia B - San Viator Zubikoa
- 11:15 Txantxi - Arrasate B
- 11:15 Aozaratza - Arrasate A

FUTBOLA

NESKAK

Atxabalpe

- 09:00 SFX B - SFX A
- Almen
- 09:15 Torrebaso - La Merced Bergara
- 10:00 Aranzadi B - San Viator

MUTILAK

- Almen
- 10:30 Almen - SFX Ibarra
- 09:30 Kurtzebarri - La Merced

MULTIKIROLA

NESKAK

Jturripen

- 10:00 Merced - San Viator A
- 10:45 SFX A - Erguin
- 11:30 San Viator B - SFX U

MUTILAK

- 10:00 Merced - SFX U
- 10:45 San Viator B - SFX A
- 11:30 Aramaio - Erguin
- 12:15 San Viator C - SFX C
- 12:15 San Viator A - SFX B

AURREKIROLA

Gazteluondo

- 09:30 SFX C - Erguin A
- 09:30 Merced B - Aramaio
- 10:30 SFX D - SFX A
- 10:30 San Andres - Merced A
- 11:30 ERguin B - Musakola
- 11:30 San Viator A - SFX U
- 12:30 SFX B - San Viator U
- 12:30 SFX B - San Viator B
- 12:50 SFX E - San Viator B
- 13:10 SFX E - SFX B

Taldez talde

FUTBOL TXAPELKETA

MUTILAK

	P	JP	I	B	G
SFX	6	2	2	0	0
La Merced	6	3	2	0	1
Txantxi 1A	6	2	2	0	0
Almen	4	3	1	1	1
Kurtzebarri	3	1	1	0	0
Aozaratza	3	2	1	0	1
Ipintza DBH	1	3	0	1	2
Aranzadi	1	3	0	1	2
Txantxi 1B	1	3	0	1	2

NESKAK

San Viator	9	3	3	0	0
Aranzadi A	6	3	2	0	1
Almen	6	2	2	0	0
SFX B	3	3	1	0	2
Torrebaso	3	2	1	0	1
SFX A	3	3	1	0	2
La Merced	3	3	1	0	2
Aranzadi B	0	1	0	0	1
Elgeta	0	2	0	0	2

P: puntuak • JP: jokaturako partidak • I: irabazitakoak • B: berdindutakoak • G: galdutakoak



Musakola eta SFX, Santa Teresa, taldeak.



San Viator eta Institutuko neskak.

SASKIBALOA Berriz ere gora



82 eta 68 irabazi zuten senior mailako saskibaloitaldekoek joan den larunbatean Iturripen. Beasaingo BKL taldearen aurka jokatu zuten eta hasieran galitzen hasi ziren arren, azkenean jaun eta jabe egin ziren.

Lander Errasti entrenatzaileak 8 jokalaririk bakarrik izan zituen bere aginduetara. Ivan Garrido eta Eugenio Aiala min hartuta daude. Alvaro Kokak, oraindik guztiz errekuperatu gabe dagoela eta, ez ateratzea erabaki zuen.

Bigarren zatian aurrea hartu zuten arrasatearrek. Kontraeraso azkarrak egin zituzten eta saskiratzeak ugaldtu. Zaleek parte hartu zuten partidaren eta azkenean 82 eta 68 irabazi zuten arrasatearrek.

XAKEA Gauzak oker



San Andres Xake taldeak galdu egin zuen Arrasaten jokatuak neurketan. Donostiako Gros A taldearen aurka jokatu behar izan zuen San Andreseko lautokoteak, liderraren aurka, hain zuzen ere. Eta donostiarrak hobeak izan ziren. Bi partida berdindu eta bi galdu egin zuten arrasatearrek.

Gauzak horrela, taldea nahiko lur jota dagoela adierazi digu kideetako batek. Izan ere, "kontua ez da gauzak gaizki egiten ditugula, baizik eta azken orduan hanka sartzen dugula. Donostiarraren aurka egin genituen akatsak aurrean ere egin genituen".

Azkenean 3 eta 1 galdu zuten eta sailkapenean zazpigarren daude.

FUTBOLA Infantilak gogor



Atxabalpen europiar aritu behar izan zuten oho-rezko infantilek joan den asteburuan. Dena dela, berdin izan zitzairen, gogotsu zelairatu ziren eta.

Lehen 45 minutuetan hiru gol sartu zituzten Mondrako infantilek eta laugarrenean kale egin zuten. Penalti baten jaurtiketan izan zen kalea. Gauza bitxi bat: atezainak jaurti zuten penaldia.

Jokoaren bigarren zatian aldatu egin ziren gauzak. Badi-rudi etxekoek konfiantza larregi hartu zutela eta Union Txiki aprobe txatu egin zuen. Horrela, bi gol sartu zizkieten etxekoei arauzko bigarren 45 minutuetan. Azken emaitza 3 eta 2koa izan zen, etxekoek alde.

ESKUBALOA Berriz ere kale



Gaizki ari dira Arrasate Almen eskubaloitaldekoak. Nagusiek galdu egin zuten kanpoan, Leizaran taldearen aurka joan den larunbatean. Eta gauza bera egin zuten gazte mailakoek Iturripen, igandean jokatu zuten partidaren.

Aurrez aurre, Arrasate eta Elgoibar aritu ziren, baina elgoibartarrek hasieratik jokatu zuten erasoan eta etxekoek ezin izan zuten mendean hartu.

Espereintzia gehiago zuten kanpokoek eta horrek eragina izan zuen jokoan ere. Dena dela, etxeko taldeko atezaina, Jon Etxeberria, fin aritu zela esan beharra dugu.

Partida, ostera, 12 eta 30 galdu zuten etxekoek.

Emaitzak

ERRUGBIA

- **Gazteak:**
Arrasate 34 - Atletico de SS 29
- **Kadeteak:**
Zarautz - Arrasate

FUTBOLA

- **1. errejional maila:**
Pedrusko 2 - Mondra 0
- **Ohorezko gazteak:**
Mondra 3 - Euskalduna 1
- **2. gazteak:**
Bergara 3 - Arrasate 3
- **Ohorezko kadeteak:**
Ilintxa 5 - Arrasate 2
- **2. kadeteak:**
Arrasate 7 - Almen 0
- **Ohorezko infantilak:**
Arrasate 3 - Union Txiki 2
- **Errejional maila, neskak:**
Bergara 3 - Mondra 1

ESKUBALOA

- **Seniorrak:**
21 Leizaran - Arrasate
Almen 18

Gazteak:

- Arrasate Almen 12 -
Elgoibar 30

SASKIBALOA

- **Seniorrak:**
Kenci arrasate 82 - BKL 68
- **Juniorrak:**
Kenci Arrasate 75 - Inter 66
- **Kadete mutilak:**
Kenci Arrasate 32 -
Goierri 43
- **Kadete neskek:**
Oñati 36 -
Kenci Arrasate 40

XAKEA

- **Errejonalean:**
San Andres 1 - Gros A 3

PILOTA

- **Juniorrak:**
Billabona 22 - Arrasate 14
- **Gazteak:**
Antzuola 8 - Arrasate 22
- **Kadeteak:**
Oñati 22 - Arrasate 16

Jokatzeak

ERRUGBIA

- **Seniorrak:**
Bilbo - Arrasate
- **Gazte mailakoak:** JAI
- **Kadeteak:**
Ordizia - Arrasate

FUTBOLA

- **1. errejional maila:**
Mondra - Kilimon
larunbata, 15:30.
- **Ohorezko gazteak:**
Sportin Herrera - Mondra
- **2. gazteak:**
Arrasate - Eibartarrak
larunbata, 12:30.
- **Ohorezko kadeteak:**
Lagun Onak - Arrasate
- **2. kadeteak:**
Uda - Arrasate
- **Ohorezko infantilak:**
Lagun Onak - Arrasate
- **Errejional maila, neskek:**
Urki - Mondra

ESKUBALOA

- **Seniorrak:** JAI
- **Gazteak:**
Legazpin - Arrasate Almen

SASKIBALOA

- **Seniorrak:**
Zarautz - Kenci Arrasate
- **Juniorrak:**
Askatuak Cafes Aitona -
Kenci Arrasate
- **Kadete mutilak:**
Iraurgi Tapetes Mandiola -
Kenci Arrasate
- **Kadeteak neskek:**
Kenci Arrasate -
Eskoriatza Almen
larunbata, 10:30
(Musakola).

XAKEA

- Gros C - San Andres

Zazpinako futbol txapelketa



Aitor Lopez Rekarte eta iaizo txapelketako irabazleak.

Bonba Taldiek antolatzen duen Zazpinako futbol txapelketa abenduaren 21ean hasi eta 31ra bitartean jokatu da, Atxabalpen. Izen ematea azaroaren 22tik abenduaren 17ra bitartean egongo da zabalik. Horretarako Atxabalpeko bulegora jo besterik ez dago, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean, astegunetan. Azken egun horretan egingo da zozketa eta orduan jakingo dugu nor arituko den

noren aurka.

Izenak dioen bezala, txapelketa honetan parte hartuko duten taldeak zazpi jokalariz osatu beharko dira. Baina badira kontuan hartzeko beste arau batzuk ere:

- Norgehiagokak 50 minutuok izango dira, bi zatitan eta bost atsedenaldi egingo dira.

- Talde bakoitzak gutxienez 6 eta gehienez 14 jokalaria izan beharko ditu. Hala ez

balitz, partida galdutzat emango litzateke.

- Talde bakoitzak nahi dituen aldaketa guztiak egin ahal izango ditu.

1987-88 urteetan jaiotako haurrei zuzendua dago txapelketa eta federatuta dauden jokalariek ezin izango dute parte hartu. Jokalari bakoitzak bere jantziak eraman beharko ditu, baina kontuz botekin! Gomazko takoak dituztenak baino ezin izango dira erabili eta.

Errugbilari gazteenen deialdia

Arrasateko Errugbi Taldeko kadeteek asteburuan ekingo diote aurtengo denboraldiari. Ordizian jokatu dute lehen partida, hango taldearen aurka. Helarazi digutenez, "irrikitan gaude liga hasteko, orain arte lagun arteko partidak bakarrik jokatu ditugu eta. Batzuk irabazi eta beste batzuk galdu egin ditugu, baina orokorrean ondo pasatu dugu. Dena dela, jende gutxi gaudela aitortu behar dugu eta horregatik, jendea animatu nahi dugu taldera etor dadin, gu poztu egingo gara eta". Joan den asteburuan Atletico de San Sebastian eta Durangoko taldeen arteko lagun arteko partidak jokatu zituzten eta irabazi egin zituzten bi norgehiagokak.

Ea, bada, asteburu honetan liga hasiera ona egiten duten kadete mailakoek.

Behobia-Donostia arrakastatsua

Jabier Mentxaka eta Diana Idigoras izan ziren Behobia-Donostia lasterketan arrasatear azkarrenak. Mentxakak 1:06:48ko denbora egin zuen eta Idigorasak, 1:28:28koa.

94 korrikalari joan ziren Behobiara Arrasatetik eta guztiek amaitu ez zuten arren, meritua behintzat ez zitzairen falta izan. Eurria izan zuten lagun lasterketa osoan zehar eta helmugaratu ostean, aterperik ez aldatzeko. Dena dela, proba herrikoi honek engantxatu egiten duenez, ziur datoren urtean ere askok emango dutela izena.

Euskal Herriko trial txapelketa

Euriak ez zuen batere lagun du Udalan jokatu zen Euskal Herriko trial txapelketan. Igan-dean 24 motorzale aritu ziren Arrasateko Motorzale elkar-teak antolatutako proban. Hauek izan ziren irabazleak:

- Juniorretan, Migel Saez (Nafarroa)
- Seniorretan, Gonzalo Zabala (Bizkaia)
- Beteranoetan, Juan Carlos Maurer (Bizkaia)
- Afizionatuetan, Manuel Iglesias (Gipuzkoa)





Zorte txarra

az 3. gelditu ziren Lontxo Taberna taldekoak. Aurten, berriz, marka guztiak hautsi dituzte. Lehenengoan kalera joan dira!

HASIERA LISKARTSUA

Lehenengo jardunaldia jokatu zen joan den asteburuan Zaldibarko txapelketan, baina ez da, ez, hasiera ederra izan talde batzuentzat behintzat.

Antolatzaileek berriz erakutsi dute txapelketako arautegia betetzen dutela eta horren adibide izan da Bonba Taldiek hartu duen erabakia.

Lontxo Tabernak hasiera-ko eta bukaerako partida jokatu zuen lehenengo jardunaldian. Araudiak dioenez, partidara 10 minutu baino gehiagoko atzerapenarekin heltzen den taldea txapelketatik kanpo geratuko da. Eta Lontxo Tabernari horixe gertatu zaio. Kanpora bidali dute ordua baino ordu laurden beranduago

iristeagatik. Beraz, ezinezkoa izango zaio iaz bezala hirugarren izatea.

Dena den, Komando Alpargat taldearen aurka jokatu beharreko norgehiagoka ez zen bertan behera geratu. Ordu laurden beranduago, baina Lontxo Tabernak jokatu zuen partida eta 12 eta 1 galdu zuen Komando Alpargaten aurka.

ADI ARAU HAUSLEEKIN

Lontxo Tabernarekin segitu beharra daukagu. Izan ere, taldeak ez omen du izen ematea ordaindu, nahiz eta antolakuntzak horretarako epea luzatu zion.

Bonba Taldieren kezka zera da: txapelketatik kanpo dagoenez, zer gertatuko da orain?



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Emaitzak

A taldea

Kom. Alpargat 12 - Lontxo 1
 AC Surkos 17 - Giraldilla Con. 7
 Ume Zikinak 12 - Xhasss 6
 Irari STS 2 - Betrayer 3
 DA Iristu 5 - Orlando 5
 Etxe Mobil 1 - Sokoakoak 5
 Fraguel Gol 2 - Kobate DKB 4
 Kanpazar Harrobia 11 - Totem 2
 Atxanta el Ret. 1 - AT Lokala 15
 Bar Nuevo 1 - Saukelu Scream 5
 Goma bi 2 - You Know 5

B taldea

Branka Tab. 4 - Etxerat Taberna 5
 Txeyenex 2 - Borrock & Roll 9
 Garaje Oscar 11 - Aldibi 1
 SAS T 5 - Makanudos 5
 Timoftol SMD 5 - EPEH 7
 KK Jaurilaritzari 4 - Leya 1
 Dribling 6 - Alai Gozokiak 2
 IKP 7 - Makai 3
 AKTA 1 - Serengeti 2
 KJ Basati 5 - Kamasutra 2
 Aurrera Bolie 4 - Potroak 4

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.	
AT Lokala	1	1	0	0	15	1	2	
K. Alpargat	1	1	0	0	12	1	2	
Kanpazar Harrobia	1	1	0	0	11	2	2	
Sokoakoak	1	1	0	0	5	1	2	
Sau. Scream	1	1	0	0	5	1	2	
AC Surkos	1	1	0	0	17	7	2	
You Know	1	1	0	0	5	2	2	
Ume zikinak	1	1	0	0	12	6	2	
Kobate DKB	1	1	0	0	4	2	2	
Betrayer	1	1	0	0	3	2	2	
DA Iristu	1	0	1	0	5	5	1	
Orlando	1	0	1	0	5	5	1	
Fraguel Gol	1	0	0	1	2	4	0	
Irati STS	1	0	0	1	2	3	0	
Xhasss Ugar.	1	0	0	1	6	12	0	
Goma 2	1	0	0	1	2	5	0	
Girandilla Con.	1	0	0	1	7	17	0	
Bar Nuevo	1	0	0	1	1	5	0	
Etxe Mobil	1	0	0	1	1	5	0	
Totem	1	0	0	1	2	11	0	
Lontxo Tab.	1	0	0	1	1	12	0	
Atxanta el Ret.	1	0	0	1	1	15	0	

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.	
Garaje Oscar	1	1	0	0	11	1	2	
Borrock & Roll	1	1	0	0	9	2	2	
KK Jaurilaritzari	1	1	0	0	4	1	2	
Dribling	1	1	0	0	6	2	2	
IKP	1	1	0	0	7	3	2	
KJ Basati	1	1	0	0	5	2	2	
Serengeti	1	1	0	0	2	1	2	
EPEH	1	1	0	0	7	5	2	
Etxerat Tab.	1	1	0	0	5	4	2	
Makanudos	1	0	1	0	5	5	1	
Aurrea Bolie	1	0	1	0	5	5	1	
Potroak	1	0	1	0	5	5	1	
Sas T	1	0	1	0	5	5	1	
Branka Taberna	1	0	0	1	4	5	0	
Timoftol SMD	1	0	0	1	5	7	0	
AKTA	1	0	0	1	1	12	0	
Kamasutra	1	0	0	1	2	5	0	
Makai	1	0	0	1	3	7	0	
Alai Gozokiak	1	0	0	1	2	6	0	
Leya	1	0	0	1	1	4	0	
Txeyenex	1	0	0	1	2	9	0	
Aldibi	1	0	0	1	1	11	0	

ARRASATE KIROLAK
 Kontezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

ALDIBI BARREGARRI

Iazko talde txapel-dunak, Aldi-bik, ez zuen hasiera ona izan aurtengo Zaldibarko txapelketan. Barregarri geratu zen lehenengo jardunaldian. Izan ere, 11 eta 1 galdu zuen B taldeko Aretxabeletako Garaje Oscar taldearen aurka.

Hori dela eta, lehenengo jardunaldiaren ostean sailkapeneko azkenengo tokian daude. Azken putza beraz, iazko txapel-duna. Ikusi egin behar hurrengo jardunaldian gauzak aldatzen diren eta

ganora gehiago jartzen duten. Jakin dugunez, atezaina galtza bakeroekin jokatu zuen eta, estraineko nor-gehiagoka.

A ZE PIURA!

Beste taldeei dagokienez, aipatzekoak dira AT Lokalak sartutako gol zaparrada: 15 eta 1, Atxanta el Retorno taldearen aurka. AC Surkosek 17 sartu zizkion Giraldilla Conection taldeari.

B taldean gol kopurua txikiagoa izan zen.



“PAL”
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea, 3
 Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Zuri Garbiketak
 • Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
 • Edozein zoru motari dizdira ateratzea.
 Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

Erdiko kale. 79 19 37

 Ferrerías. 943 79 87 62

ASIER ARANGUREN (KAZETARIA)

“Nire doktore tesia e...

Gaztea da, 34 urte, baina ezaguna. Telebistak egin du ezagun Asier Aranguren. Eta telebistaren barruan, kirol saioek, ETBko kirol saioek. Dena dela, aretxabaletar gazte hau Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea ere bada eta oraintsu doktore tesi bat defendatu du euskarazko herri komunikabideei buruz. Bikain cum laude aipamena eman diote. Ez dugu ahazten, noski, ATBn arduradun moduan egin zituen lanak.

— “Komunikabide lokalak Euskal Herrian” du izenburua egin duzun tesiak. Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

— Gai hori aukeratu nuen garaian, hiru komunikabideetan nenbilen lanean aldi berean: CNNn, ETBn eta ATBn. Hiru komunikabideen artean konturatu nintzen nire etxeko berriketak, lagun taldearenak

eta abar, ATBn egiten zirela gehienak. Oso gertukoa zela konturatu nintzen. Gainera, inork gutxi egin du horri buruzko ikerketa eta nik uste dut herri komunikabideek badutela garrantzia, hurbil-hurbileko informazioa lantzen dutelako. Honen azterketa egin beharra zegoen, eta pentsatu nuen: zergatik ez neuk?

— Tesia defendatu duzu eta bikain cum laude aipamena lortu. Gustura emaitzarekin?

— Bai, noski. Ez dago hori baino hoberik lortzerik. Gainera, luze joan zait tesia egitea. ETBko lana, irakasle izatea... Azkenean bukatu dut eta pisu makala kendu dut gainetik. Baina pozik nago, batez ere uste dudalako tesia erabilgarria dela. Hori ez da unibertsitatean aurkezten diren tesi askorekin gertatzen. Gehienak hantxe gertatzen dira artxibatuta eta nik

uste dut nirea erabilgarria dela.

— Ehun irakasle ere bazara. Funtsezkoa da kazetari bat unibertsitateetik pasatzea?


— Ez. Irakasle izanda, nik ez nuke hori esan beharko, baina irakasle izateaz gain, kazetari ere banaiz eta ez dut ikusten beharrezkoa. Komenigarria bai, baina.

Badaude kazetari batzuk sena dutenak unibertsitateetik pasatu barik eta beste batzuk titulua izan arren, komunikatzaile onak ez direnak.

Ez da beharrezkoa, bai komenigarria.

— ETBn urte asko igaro dituzu. Nola gogoratzen dituzu hasiera haiek?

— Urte asko pasatu dira



“Kazetari izateko ez da beharrezkoa unibertsitateetik pasatzea; bai, ordea, komenigarria”

abilgarria izango da”

ordutik hona. Ni Aretxabaletan hasi nintzen. Manolo Zubillagak esatari lanak betetzen zituen ni kakamutikoa nintzela, eta denera ailegatzeko ez zenez, laguntza eskatzen zidan. Gero, ikasle nintzela, bigarren urtean edo, Radio Nacional de Españatik deitu zidaten. Ondoren, EEBBra joan nintzen master bat egitera eta han CNNn lanean ibili nintzen. Etorri nintzen hona eta ETBn... Oso gustura nabil, nik uste baino gustorago.

— Orain, berriz, ez zaitugu pantailan ikusten. Zer dela eta?

— Urte sabatikoa eskatu dut, maite ditudan pertsonekin denbora gehiago egiteko. Izan ere, orain arte asteburuetan ETBn, astebarruan unibertsitatean, tesia bukatu beharra... ez nuen astirik. Honetaz gain, amets batzuk egia bihurtu nahi ditut. Hainbeste lanekin albo batera geratzen dira, bestela...

— ATB egunero emititzen hasi zenean hementxe ibilizinen aholkulari lanetan. Zer zapore utzi zizun lan horrek?

— Ederra, noski. Beste edozer moduan, abiatzen denean edo aldatzen ari denean, oso poli-

ta izaten da. ATBn orduan zebilen jendea ere sekulakoa zen. Oso gustura ibili nintzen, bai.

— Kazetari ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke aritzea?

— Ezta idearik ere. Ez dakit, kirola egiten behar bada... Oso gustura egiten dut kazetari lana. Gainera, uste dut pertsona askorekin egoteko aukera ematen duen lana dela. Gainera, lana bera ere oso bestelakoa da, arlo ugari ditu. Orain arte kiroletan aritu naiz, baina, adibidez, CNNn lanean ibili nintzenean, erreportajeak

egiten nituen. ATBn ere beste lan mota bat bete nuen.

Norberarentzat oso aberatsa da eta, gainera, hori irakasle izatearekin lotuz gero... Lanbideari dagokionez, ez dut beste ametsik, oso gustura nabil.

— Gerora begira, zer?

— Oraindik makina bat urte bizitzea espero dut, bai. Printzipioz, lehen esan dudana: amets batzuk bete, mendira joateko denbora gehiago hartu eta horrelakoak.

Lanari dagokionez, berriz, uste dut laster itzuliko naizela berriro lanera. ■

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Erraldoi eta kilikiak



Arrasateko erraldoiak kilikiak eta dultzaineroak.

Datorren larunbatean, azaroren 20an, Euskal Herriko hainbat lekutako erraldoiek eta kilikiak hitzordua izango dute Arrasaten. Ekitaldi ugari antolatu dituzte; 12:30ean, esate baterako, herriko enparantzan konpartsero eta musikariei ongi-etorria egingo zaie. 13:00etan Elgoibarko, Gasteizko, Bizkaiko eta Arrasateko dultzaineroak kalejiran eta

tabernajiran arituko dira. Konpartsakideen anaiarteko bazkaria izango da eta 19:00etan herriko plazan, erraldoien eta kilikien konpartsak Arrasateko herriari eskainitako ekitaldia izango da. Erraldoien eta kilikien jaia Arrasateko erraldoien eta kilikien konpartsak eta Arrasateko dultzaineroek antolatu dute, Udala eta AZKren laguntzarekin.

Elena Arroyoren margolanak

Elena Arroyo santurtziarren margolanak San Andresko Toki-Eder kafetegian izango dira ikusgai azaroan. Elena Arroyok hamar urte daromatza marrazten, eta gaur egun Bilboko Erreprodukzio Aartistikoetarako Museoan jasotzen ditu margo eskolak.

Kolorezko orban bat abiapuntutzat harturik, paisajea hartu ohi du gaitzat Elena

Arroyok, eta ausaz jarritako paper zatiak erabiltzen ditu koloreari dentsitate handiago emateko. Oro har, definizio gutxiko paisajeak dira, eta espresionismoaren barruan sailka daitezke.

Elena Arroyok 1997 eta 1999 urteen artean taldeko hogeia erakusketatan hartu du parte, eta bakarkako beste batean.



Etxeko tratu txarrak? Eraso sexualak?



Emakume,
zuri laguntzeko
gaude

943 79 09 00 / 943 79 41 39

Gizarte Zerbitzuak
Emakume Saila

JON GARAI (ARRASATEKO UDALEKO KULTURA TEKNIKARIA)

“Arrasatek kultura eskaintza aberatsa du, oro har”

Jon Garaik hamar urte daramatza Arrasateko Udaleko Kultura saileko arduradun gisa. Asteburuan hainbat kultura ekitaldi izango da: larunbatean Sevillako *Imperdibles* Produkzioak taldearen eskutik “Un poeta en Nueva York” antzezlana, eta igandean beldurrezko eta fantasiako zine maratoia. Jonek eman digu guztiaren berri.

— Nork antolatu du beldurrezko eta fantasiako zine maratoia?

— Antolaketa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailarena da. “Gaztemaniak” egitarauaren barruan antolatu du, Arrasateko Udaleko Gazteria Sailarekin elkarlanean.

— Zer da Gaztemania?

— Aldundiko Gazteria sailak duen egitaraua da, Gipuzkoako gazteei zuzenduta kultura ekintzak antolatzeko. Musika eta zinearen inguruko ekintzak dira batez ere.

— Aurten bigarren aldia du. Hainbestekoa izaten da maratoiaren arrakasta?

— Beldurrezko eta fantasiako zineak zale gazte asko ditu. Maratoiaren formula arrakastatsua da. Eskaintzen diren film labur eta luzeen artean egile ezagunak daude (Tinieblas Gonzalez kasu), izenburuak kalitatezkoak dira eta 6-7 orduz beldurraz eta fantasiagozatzeko aukera ematen du.

— Zein film ikusiko da?

— 3 luze eta 3 labur emango dira: Laburrak *The Raven*, Tinieblas Gonzalezena, *Abuelitos*, Francisco Plazarena eta *Viet-nam*, Manuel Romorena. Luzeak, berriz, *The Stormriders*, Andrew Laurena, *El*



hombre Elefante, David Lynchena eta *Angel of the Night*, Shaky Gonzalezena.

— Larunbatean “Un poeta en Nueva York” antzezlana izango da Amaia antzokian. Zertaz da?

— Ikuskizun multimediatikoa da, Federico Garcia Lorcaek idatzitako “Poeta en Nueva York” poema liburuan oinarritua. Ikuskizunen irudiak, antzerkia, dantza, musika... nahasten dira.

— Nolakoa da Arrasateko kultura eskaintza?

— Oro har aberatsa, kontuan hartuta Arrasateko kultura eskaintza ez dela bakarrik udalak antolatutako kultura ekintzetara mugatzen. Arrasaten elkarte, talde, leku eta zentro mordoak dago eta bakoitzak bere kultura eskaintza egiten du. Nahi izanez gero, badago non hautatu; adi egotea baino ez dago. Honek ez du esan nahi dena eginda dagoenik edo hobetzerik ez dagoenik, jakina.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Garraio Zuzendaritzak hiru prestakuntza-bekatarako deia egin du, goi mailako tituludunei zuzenduta, batez ere zuzenbidea, ekonomia edo enpresa zientziak, informatika edo goi mailako ingeniariartzako lizentziatuei zuzenduta. Epea: azaroak 25.

■ LANA

• Andoingo Udalerako euskara teknikaria behar da. Epea azaroak 29.

• Port Aventura 800 lanpostu bete nahi dira datorren urtean martxotik eta azarora bitartean lan egiteko. Epea: abenduak 8.

• Zumarragako Udalak arkitektoa, zergabiltzaila eta errentarako administraria, liburutegiko arduraduna eta udaltzaina behar ditu. Epea EAOean argitaratzeko zain dago.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkarietan azaltzen diren lanpostu-iragarrien bilduma. Interesik edukiz gero, etor zaitez bulegora.

IKASTAROAK

• Perkusio ikastaroa Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenetan 18:00etatik aurrera, Gazte-luondoko ikastolan.

■ LEHIAKETAK

• Bilbo “Pop Rock” lehiaketa antolatu da aurten ere. Edozein taldek har dezake parte, bi musika modalitateetan: pop-rock edo metala. Lanak aurkezteko epea: abenduak 31.

• AED elkarteak urteroko “Arrasate Lehiaketak” deitu ditu, komikia, euskara testigantza, irati-erreportajea, ipuina, poesia eta bertso-paper arlotan. Lanak aurkezteko epea: otsailak 11.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Zine maratoian sei film emango dira igandean”

ATB

Programazioa

OSTIRALA 19

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzatza.
Kontxi Juantorenenak plater bat.
- 13:45** Zortziko Txikian. Anartzek Andoni Egaña elkarrizketatuko du eta Basarri hil berriari omenaldia egingo zaio (errepika).



Anartz Agirre.

- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
Eguneko albisteak, Maider Osak aurkezturik.
- 21:30** Astebete. Maider Osak astean izandako albisterik garrantzitsuenak errepasatuko ditu.
- 22:00** Gatza ete Berakatzatza (errepika.)
- 22:15** Soinuz Blai. Azken orduko bideo klipak, Edu Abasolok aurkeztuta.

LARUNBATA 20

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Zortziko Txikian, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA 21

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Zortziko Txikian, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 22

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzatza.
Kontxi Juantorenenak plater bat prestatuko digu.



Kontxi Juantorena.

- 13:45** Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Mondrasport. Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik asteburuan kirolak eman duenaren berri azalduko digute.



Itxaro Zubillaga.

- 22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika.)

ASTEARTEA 23

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzatza.
Kontxi Juantorenenak plater bat prestatuko digu.
- 19:25** Jolasplast
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Hamaika Magazin.
Astrologia, sexualitatea, osasuna... Arantzazu Lagunillak aurkezturik.
- 22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika)

ASTEAZKENA 24

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzatza.
Kontxi Juantorenenak plater bat prestatuko digu.
- 13:45** Hamaika Magazin (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez Aurre. Eburne Mujikak German Moreno elkarrizketatuko du. German Extremadurakoa da jaiotzez baina orain urte asko Gesalibarrera etorri zen morroi; gaur egun Xaramela taberna-ren jabe da.
- 22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).

OSTEGUNA 25

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzatza.
Kontxi Juantorenenak plater bat prestatuko digu.
- 13:45** Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Ekilan. Alberto Gorritibe-reak aurkeztutako programa. Gonbidatua Pedro Etxabe izango da eta landuko duten gaia, Ikerlaneko 25 urteak.



Pedro Etxabe.

- 22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Aste honetan Miren Gonzalezek emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.

OSTIRALA 26

- 13:30** Albiste Aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatzatza.
Kontxi Juantorenenak plater bat prestatuko digu.
- 13:45** Ekilan (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.
- 22:00** Gatza eta Berakatzatza (errepika).
- 22:15** Soinuz Blai, Miren Gonzalezekin.

Gatza eta Berakatzatza

Sukaldaria: Kontxi Juantorena (Uxarte jatetxea) Udala.

NOIZ

Astelehena 22
Asteartea 23
Asteazkena 24
Osteguna 25
Ostirala 26

PLATERA

Aguakate eta txaka entsalada.
Kaneloiak.
Untxia berakatzarekin.
Bakailao-kokotxak almejekin.
Ijito-besoa.

Segoviako euskalduna

Aurrez Aurre asteazkena, 21:30



German Moreno eta Edurne Mujika.

German Moreno Xaramela tabernako jabeak makina bat apostu irabazi du, jende askok ez dio-eta sinesten Segovian jaioa denik. Izan ere, Germanek primeran egin du euskaraz.

Lau urte zituela, male-tak egin eta Eskoriatzara etorri zen familiarekin. Etxean dirurik ez eta, gurasoek Gesalibarko Trojaola base-rirra bidali zuten, morroi. Hiru urte egin zituen han eta hantxe ikasi zuen euskara. Gaztelania ahaztuko ote zuen beldur, 11 urte zituela amak Eskoriatzara eraman zuen berriro.

Bere anaiak ere ibili ziren baserrietan lanean, baina inork ez zuen euskara ikasi. Germanek, berriz, oso jarre-ra irekia izan du euskarare-kiko: "Bergarako baten bate-

kin banago, 'laga' eta horre-lako hitzak erabiltzen ditut. Berdin Oñatikoren batekin elkartzan banaiz. Umeekin ere, berba asko ikasi ditut: leiho, larunbata... eta horiek ere erabiltzen saiatzen naiz".

Bere ustez, "euskara aurrera atera behar badugu, egin egin behar dugu euskaraz, katalanek egiten duten bezala". Lagun asko ditu, bai. Batzuk Fagor Arrasaten egin zituen eta beste asko Xaramela tabernan.

Lagun zaharrak, ordea, ez ditu ahaztu. Noiz edo behin joaten da Trojaola baserrira. Oso ondo hartzen omen dute. Osaba da haien-tzat. Osaba kuttuna.

Halakoxea da German Moreno. Gehiago jakin nahi duzuenok, ez galdu asteaz-keneko saioa.

Umeak ume

Jolasplast asteartea, 19:25

"Haurrik ez duen etxea, tris-tea", dio atsotitzak. Beste horrenbeste esan liteke tele-bisten inguruan: haur saio-rik ez duen telebista, tristea dela, alegia. Horregatik eta umeekiko kezka sorreratik izan duelako, ATBk beti izan du haur saioen bat. Hasie-ran *Bapirulauke*, gero *ATB-ketan* eta horren ostean *Barrelekaixoka eta Kukar-atxa Motel*.

Gaur egun, berriz, *Jolas-plast* dugu, Mikel Lizarralde kazetari ikasle urretxua-rrak aurkezten duen saioa. Bi laguntzaile txintxo ditu Mike-lek: Maitane Ruiz de Munain eta Garazi Carrillo. Bigarren denboraldia dute aurtengoa eta, astea joan astea etorri, ilu-sioz beterik etortzen dira.

Saioaren ardatza lehia-keta bat izaten da. Hiru lagu-

nez osaturiko bi talde etor-tzen dira. Lehen atalean asma-kizunak, galdera-erantzunak eta mimika saioak izaten dituzte, besteak beste. Bien arteko irabazlea bigarren ata-lera pasatzen da eta joko pol-tsa batetik hiru joko aukera-tu behar ditu. Hirutik bi gain-dituz gero, Elkoro etxeak ematen duen saria berea du.

Bi atalen artean. *Bazen Behin* ipuinen ordua izaten da. Astero-astero, Leire Era-ñak ipuin bat kontatzen du. Larunbatetan grabatzen da *Jolasplast* eta asteburuko langileak arduratzen dira horretaz. Andoaingo Bideo Eskolako hiru ikasleren laguntza izaten dute: Iart, Esti eta Enekorena, hain zuzen ere. Toki guztietan umea ume delako; baita ATBn ere.




Jolasplasteko aurkezleak.

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Telefonoa: 791814
Faxa: 792941

ETXEBIZITZAK

3. Errentan emateko

• San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokatzen da, berogailu eta guzti. Erabilera askorako baliagarria. Tel.: 943 79 18 95.

• Jendea behar da Eskoriatzako etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 943 71 55 01.

• Etxebizitza alokatzen dut ikasleentzat. Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gaeuz.

• Apartamentu bat alokatzen da Hendaiako hondartzaren ondoan. Guztiz jantzita dago, berogailu, terraza eta lorategiarekin. Astelekuera edo denboraldietarako. Tel.: 943 79 86 65 eta 656 76 02 58.

4. Errentan hartzeko

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 79 03 99.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 62 13 57.

5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Arrasateko erdialdean dago. Tel.: 630 02 60 45. Xabier.

• Neska bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Andramari 1, enparantzan. Aretxabaleta. 2.500.000. Tel.: 943 77 02 27.

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• 90 m²ko toki bat saltzen da Olarte kalean, 43 bis. Tel.: 943 77 03 96.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

salgai. Tel.: 943 79 42 65.

• Taberna salgai, ongi kokatua, eta lanarekin. Tel.: 696 36 41 25.

14. Errentan emateko

• Uribarri etorbidean 90 m²ko loka- la alokagai, lanak eginda. Tel.: 943 79 75 37.

• Ueberan 80 m²ko lokal bat aloka- tzen da, biltegi moduan erabiltzeko. 30.000 pta. Tel.: 943 76 30 84.

• Bost pertsonentzako lokal txikia alokagai, prezio onean. Tel.: 629 89 95 53 eta 630 20 56 70.

• San Bizente kalean 60 m²ko etxa- bea alokagai, berogailu eta guzti. Kontsulta edo ofizinarako egokitua dago. Tel.: 943 79 18 95.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik ger- tu, 100 m²ko eta bi solairuko loka- la alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

LANA

17. Eskaintza

• Neska gaztea prest asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 42 54.

• Emakumea prest atariak, bulego, etabarreko garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Ospital laguntzaile tituludun nes- ka prest arratsaldez lan egiteko, per- tsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943 79 81 25. Gaudetian.

• Erizain kualifikatuak gaixoak zain- tzeko prest, etxean, ospitalean edo zerbitzu berezietan. Tel.: 609 55 54 66. Gaeuz.

• Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrak ere emango lituzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

• Esperientziadun emakumea prest goizetan, pertsona nagusiak edo hau- rrak zaintzeko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Emakumea prest goizez lan egite- ko. Tel.: 943 79 40 72. Vitori.

• Neska euskalduna, administrazio eta komertzial tituluduna, prest alor honetako lanak egiteko. Frantsesa eta ingelesa menperatzen ditu. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00etatik aurrera.

• Neska euskalduna eta esperien- tziaduna etxeko lanak egin eta ume- ak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 45 24 eta 943 75 50 45. Ane. 20:00eta- tik aurrera.

• Esperientziadun emakume eus- kalduna orduka etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko prest. Tel.: 943 79 37 68.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da sukaldean lana egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Zerbitzaria behar da asteburu- tarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara era- mateko. Beharrezkoa autoa eduki- tzea. Tel.: 943 77 01 73 eta 616 92 49 88. 20:00etik aurrera deitu.

• Prestakuntzarako kontsultore bat behar da, komunikazio teknikan eta giza harremanetan trebatua eta esperientziaduna. Interesatuak 656 41 08 16 telefonora dei dezakete.

• 25-45 urte bitarteko emakumea behar da Arrasateko arropa denda batean arratsaldetan lan egiteko. Tel.: 943 79 16 12.

• Sukaldaria behar da asteburueta- rako. Ahal bada, esperientziaduna. Tel.: 943 78 34 79.

• Neska edo emakumea behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Umeak zaintzeko pertsona bat behar da, erreleboka. Tel.: 943 79 14 39. Idoia.

• Taberna batean neska edo muti- la behar dute barra zerbitzurako. Tel.: 943 77 14 93.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeleseko eta OHOkoko eskola par- tikularrak emango nituzke. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Ingelesko eskolak ematen ditu. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Ingeles filologia ikasten ari den gazte batek, ingelesezko eskolak emango lituzke. Tel.: 943 71 47 85.

• 1. eta 2. Hezkuntza eskolak ema- ten dira, euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

21. Eskerak

• DBHko matematikako eskolak hartuko nituzke, 3. mailan. Euskaraz. Tel.: 943 79 17 51. Itsaso.

• Zientzia Ekonomikoetan lizentziaduna behar da eskola partikularrak emateko, euskaraz dakiena. Tel.: 943 79 33 91. 19:00etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

• Auto hondatuta salgai, 15.000 pezetat. Gurpil berriak. Tel.: 943 79 37 68.

• Suzuki SJ413 salgai, hagun, krokadura homologatuta. Lau gurpil eta olana oparian. Prezioa: 535.000 pta. Tel.: 943 78 14 72.

• Autoa salgai Peugeot 309 GT, 1987koa. Prezio ona eta egoera onean. Tel.: 943 79 20 49.

• Ford Fiesta modela zaharra salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 13 75.

• R11-TSE autoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 92 70.

DENETARIK

26. Saldu

• Baserriko kiwiak salgai. Tel.: 943 79 97 84.

• Labea salgai, 16 litrokoa. Berria, prezinto eta guzti. 10.000 pta. Tel.: 630 22 25 22. Arratsalde. Ehunete.

• Hiztegi enziklopedikoa salgai. Batxiller, LH eta unibertsitateko ikasleentzat egokia. Tel.: 943 77 05 97.

• HIFI musika katea salgai: pletina, sintonizatzaile, disko jogailu, eta hiru bideko bi baffle. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 Wdun amplifikadorea eta Ibañez baxu elektrikoa dagokion kutxatila eta mantenu osagaiekin batera salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Idazmakina elektronikoa eraman-garria salgai; kalitate handiko inprimatzea. Olivetti PT 505. Tel.: 943 79 99 29. 19:00-21:00.

• Rot Weiler txakurrak salgai. Interesatuok deitu 943 71 48 53 telefonora.

• Bulego altzariak salgai (mahaiaik, aulkiak), oso merke. Tel.: 943 79 84 35.

• Egoera onean dauden mahai bat (80 zm. x 1m.) eta lau aulki salgai. Prezio ona. Tel.: 943 79 61 83.

• Ekonomika salgai. Egurra errez ura berotzen du, iturri eta berogailuetakoa. Tel.: 943 76 62 36.

• Akuariuma salga, osagai guztiekin. 150 litrokoa. Tel.: 649 05 32 08.

• Kerosenozko berogailua, usainik botatzen ez duena, salgai. Kero markakoa da eta ia berria dago. Prezio onean. Tel.: 943 79 09 43. Denda orduetan deitu.

• Solarium bat salgai dago, oso gutxi erabilia. Tel.: 943 77 16 54.

• Convert Supreme karro-denda, osagai guztiekin salgai. Tel.: 943 77 13 81. Manuel. 20:00etatik aurrera.

27. Erosi

• Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke. Tel.: 943 77 04 98. Irene, egunez.

• Xoxoa disketxeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

29. Eman

• 1,35 m. neurriko koltxoia oparitzen da. Tel.: 943 79 48 02.

32. Aurkitu

• Puntuzko txaleko marroi eta grina aurkitu dut autobus geltokian, Interesatuok jo Abaroara eta Tere Guridiz galdetu.

33. Bestelakoak

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginatke. Tel.: 943 71 25 11.

• Gasteizera arratsaldeko 16:00ak aldera egunero autoz baldin bazoaz, gastuak banatuko nituzke. Tel.: 943 79 58 88. Maite, gaez deitu.

• Bartzelonako telekomunikazio enpresa garrantzitsuak inbertsorea behar du (10 milioitiki gorra) Tel.: 943 22 51 61. Iñaki.



Datorren abenduaren 11n

Jostunen afaria



Lan egiteaz gain, barre eta ondo pasatu ere egin behar delako...

...sorpresa ugari prestatu dizuegu.



Biteri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43



Santa Zezilia eguna astelehenean izango denez, ezin egokiago iruditu zaigu orrialde honetara Mondragoeko musikariak ekartzea. Argazkiko talde honek herriko udal banda osatzen zuen. 1915 inguruan sortu eta 1977 ingurura arte musika jarri zuen Mondragoen udal bandak. Kanporako kontratu ugari jasotzen zuen, gainera: Aretxaba-

leta, Elorrio, Bergara eta Oñatirako, adibidez. Are gehiago, behin, Zaragozako Banden Alardean 1. saria irabazi zuen.

Argazki hau 1930. urtekoa da. Sola jauregiaren sarreran aterata dago, orain Grupo San Juaneko etxebizitzak dauden lekuan, hain zuzen ere. Hona hemen azaltzen direnatariko batzuk: lehenengo ilaran ezkerretik hasita, Mariano Azkarate, Fernando Amozarrain eta

erdialdean dagoena, Solabarrrieta, garai hartan bandako zuzendari zena.

Aurreko mutikotxoa, Donato Arregi da; bere albokoa, berriz, Rufino Aranbarri eta hurrengoa, Laşa.

Bigarren ilaran, ezkerretik hasita hirugarrena Olazabal da eta ondokoa Ortuarte. Goiko ilaran, lehenengo dagoena Otxandiano da, hurrengoa ezezaguna eta albokoa Luis Agirre. Ila-

ra horretan eskuma aldekoa, berriz, Guillermo Lasagabaster da, zuzendariordea. Gorantz segituz, azken aurreko ilaran ezkerretik hasita lehenengoa Zarraoa; ondokoa ezezaguna, ondokoa Fidel Amozarrain eta azkenik, Aranburuzabala. Goi-goian, berriz, ezkerrekoa, Migel San Pedro da.

Argazkia eta berriematea:
Bixente Azkarate.




LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Amaia udal antzokia

AZAROAK 20, LARUNBATA

22:30



UN POETA EN NY

Imperdibles produkzioak
(Sevilla)

Sarrera: 1.000 pta.


Gazte txartelarekin: 800 pta.



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Etsakara, Gazteria eta Kirol Departamentua



**Teknologia eskubide bat da,
ez pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar badu. Horregatik teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea izan da gure erronka, baina mundu guztiaren eskura egon dadin. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

Serieko ekipamendua: ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

TALLERES OLA

OPEL
INGENIARITZA ALEMANA ZURE

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(Escatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86